

## **-Biztanleria:**

**1-2050ean etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraituko dute ala oraingo prezioetan mantenduko dira?**

- Baa goraka jarraituko dute nire ustez, bizimodua gero eta garestiagoa delako.

**2-Jendeak Zumaia herri turistikotzat izango du edo bizileku moduan?**

-Baa azkenengo urteetan turismoa erakartzen hasi gara eta badirudi joera hori izango dela, gero eta turista gehiago etorriko direla pentsatzen dut.

## **-Ekonomia:**

**3-2050. urtean zumaia-ugarik etxetik egingo al dute lan internet bidez? Industrian ere makinak nagusitzen jarraituko al dute?**

-Orokorrean tendentzia badiduri hori izango dela, suposatzen da posible diren lanpostuetan erraztasunak emango direla etxetik lan egiteko, eta garbi dago, industrietan jarraituko dutela produktibitatea gehitzen eta horretarako baa makinak nagusitzen jarraituko dute, eta Zumaian ez da desberdina izango.

**4-Uste al duzu udalak nahiko plan badituela gazteak lehenbailehen emantzipatzeko? Gazteek Zumaia beste herriren batera joan beharko al dute?**

-Egia esan ez dakit garai batean egin ziren babes ofizialeko etxeak jendea laguntzeko, ez gazteak bakarrik, baina gaur egun ez dago tokirik etxe gehiago egiteko, eta egia esan, ba ez dakit etxeak alokatzeko aukera ugari dagoen eta udaletxeak languntzen duen hori lortzeko. Seguraski gauzak ez badira aldatzen etxe bizitzekin espekulatzen jarraituko da eta gazteek Zumaia kanpora joan beharko dute bizitzera.

## **-Jasangarritasuna:**

**5-2050ean langile gehiago beharko dira edo teknologia berrien ondorioz lan eskulan gutxiago beharko da?**

- Bueno ba lehen esan dugun bezala makinaren produktibitatea gero eta handiagoa izango da, eta horren ondorioz, eskulan gutxiago beharko da.

**6-Enpresek sortzen duten kutzadura guztia jasateko gai izango al da Zumaia herria?**

- Ba suposatzen da hasi garela kontzienteagoak izaten inguruneak daukan garrantziarekin eta gutxiago kutsatu behar dugula, ingurumen-politika gero eta fuertagoak izango dira eta kutzadura gutxiago sortzeko pentsatzen dut.

**7- Zure ustez horrenbeste turista etortzen badira, Zumaia portua handitu beharko lukete?**

- Ba ez zait iruditzen beharrezkoa eta ez da komenigarria ere.

### **-Klima Aldaketa:**

**8-2050erako itsas maila igo egingo da. Zer gertatuko Zumaia bezalako kostaldeko herriein eta haietan bizi den jendearekin?**

- Itsas maila igotzen hasiko dela eta ur ertzetan dauden etxebizitzak ezinezkoa izango dela hor bizi zena, eta jendea hurrinago joan beharko da, edo herritik alde egin beharko dutela beste toki batera bizitzera.

**9-Zure ustez zenbat gradu egingo du gora tenperaturak?**

- Ba ez dakit zenbat gradu gora egingo duen, pare bat.

### **-Jendartea**

**10-Zumaiarrok euskaraz mintzatzen jarraituko dugu gure artean ala gaztelaraz hitz egingo dugu?**

-Bueno ba pentsatzen dut gero eta lan gogorragoa egin beharko dela euskaraz mintzatzen jarraitzeko herrian, zeren eta gero eta kanpotar gehiago etortzen dira euskaraz ez dakitenak.

**11-Emakumezkoen kontrako tratu txarrek gora egingo dute ala gutxiagotu egingo dira?**

-Benetan espero dut tratu txarrak orokorrean gutxitzen joatea eta gero eta toleranteagoak izatea guztiekin, emakumezkoen tratu txarrak, konkretuki ba baita ere gutxitzen joan beharko lirateke ez? Ikastetxeetan eta umeen heziketan gaur egun jada gehiago hitz egiten da honi buruz, eta baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan ere, horrek lagunduko du tratu txarrik gutxitzen pentsatzen dut.

### **-Bestelakoak**

**12-Turista guztientzat aparkalekua egongo al da Zumaian?**

- Ba ez dut uste egongo denik jadanik ez dago eta, gainera ere suposatzen da beste mobilidade erak promozionatu egin beharko direla.